



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ***
JAUNAK, BIZKAIKO ARRANTZA ETA KASTING FEDERAZIOAREN
DIZIPLINA-BATZORDEAK 2016ko IRAILAREN 15ean EMANDAKO
EBAZPENAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA.**

Espediente-zenbakia: 24/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko urriaren 21ean, ***** jaunak errekurtsu bat jarri zuen «*Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren Kirol Diziplina Batzordeak ezetsi egin zuelako nire deskafilikazioa zela medio emandako ebazpenari jarritako errekurtsua. Deskalifikazio hori Bilboko Abusu auzoko Santa Isabel parkean ekainaren 12an egin zen Ziprinidoen Txapelketa Sozialari dagokiona da*».

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzat jotzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanaz.

Hirugarrena.- 2016ko abenduaren 2an Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak bidalitako espedientea jaso da, baita Federazioaren lehendakariak egindako txostena ere.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.a) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.a) artikulua.

Bigarrena.- Eztatidaren xedea lehenengo aurrekarian aipatutako txapelketan oraingo errekurtsogileari jarritako deskalifikazio-zehapena da; izan ere, «*hondoan arrantzatzen jarraitu zuen, bere jarduna zuzendu gabe eta kulubiza desbideratzea eragozten zuen gehiegizko lasta kendu gabe*», nahiz eta «*epaileak ohartarazi zion kulubiza desbideratzea eragozten zuten gehiegizko berunak kentzeko*».

Zehapen hori behar bezala jaso zen «ziprinidoen 2016ko txapelketa sozialaren aktan». Akta hori lehiaketaren epaimahaiak sinatu zuen 2016ko ekainaren 12an eta espedientean azaltzen da.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren Diziiplina Batzordeak emandako eta hemen aurkaratutako ebazpenean berresten da lehiaketaren epaimahaiak aurretik hartutako erabakia, ***** jaunaren deskalifikazioa egokia dela adieraziz.

Hirugarrena.- ***** jaunak uste du «*probaren ardura zuen epaileak aparailua altxatzeko eskatu zionean ez zuela inolako oztoporik jarri eta errekerimendu hori bete zuela, eta epaileak ez ziola beste errekerimendurik eta oharrik egin aparailuko gehiegizko beruna kentzeari buruz (...)*»



Era berean, honako hau argudiatu du: *«sailkapena irakurri arte inork ez dit jakinarazi deskalifikatu egingo nindutela, eta ez didate salaketak ezeztatzeko aukerarik eman...»*

Laugarrena.- Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lehendakariak jarritako errekurtsolari buruzko hainbat kontsiderazio helarazi dizkigu bere txostenean.

Lehenik eta behin, aipatutako batzordeak uste du jokoaren arauak *«arbitroak soilik epaitu ahal izango dituela, arbitroa baita joko-arauei buruz erabakitzeko gaitasuna eta boterea duen pertsona bakarra. Hortaz, ezin dira berrikusi arbitroek, kasu honetan lehiaketaren epaimahaiak, joko-arauei buruz hartzen dituzten erabakiak»*.

Beraz, jarraitu du esaten, «errekurritzen den egintza joko-araua denez, eta ez zehapena, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ez dauka eskumenik arbitroak joko-arauak zorrotz betetzeari dagokionez hartutako erabaki teknikoak berrikusteko, berrikuspen jurisdikzionaletik kanpo hartzen den egintza bat delako».

Bosgarrena.- Errekurtsogilearen idazkian adierazitako alegazioak eta Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioak bere txostenean helarazitako hausnarketak aztertu ostean, kasu honetan, errekurtsoa ezetsi egin behar dela uste dugu, jarraian azalduko ditugun arrazoiak direla-eta.

Lehenik eta behin, gure ustez ez da egokia Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren lehendakariak adierazitako irizpidea, lehendakari horrek uste duelako Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ez daukala eskumenik errekurtsoarean mamia aztertzeke.



Lehendakariak bere txostenean argudiatutakoaren aurka, diziplina-eremuan kokatuta gaude. ***** jauna zehatu egin dute kirol-proba batetik deskalifikatuta proba horretan arautegia urratu duelako.

Zehazki, Espainiako Federazioaren Arautegiaren 8.4 artikulua urratu du. Txapelketa hori artikulua horren bitartez eraendu zen, aktan adierazten denaren arabera. Artikulu horretan debekatu egiten da «*gehiagizko lasta: kulubizak lasta osoari eta beitari eutsi behar die*», eta ***** jaunak ez du eskaera hori bete.

Eta diziplina-eremu hori zela medio, Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioko Diziplina Batzordeak eman zuen orain aurkaratu den ezesteko ebazpena.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioko Diziplina Batzordearen Arautegiaren 2.1 artikuluan adierazten denez, «*kirol-diziplinaren eremua jokorauen edo lehiaketa-arauen eta kirol-arau orokorren arau-hausteetara hedatzen da*».

Seigarrena.- Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 50.2 artikuluan jasotzen den moduan, kirol-arloko epaileek hartutako erabakiak «*zuzentzat joko dira, eta epaileen aktak lehiaketak behar bezala garatzeko beharrezko dokumentuak izango dira*».

Baina Federazioaren lehendakariak nahasi egiten du kirol-epaileen erabakiek ziurtasun-presuntzioa izatea eta kirol-arloko arbitroen edo epaileen jardunak berrikustea ezinezkoa izatea.

Administrazio-zuzenbidean, balorazio- edo hautaketa-organoek diskrezionaltasun teknikoa deiturikoa dute. Horrenbestez, baloraziorako «ad hoc» sortutako organoaren irizpidea ezin da beste batekin ordezkatu, hura



errekurtsogileak izan dezakeen iritzi subjektiboan oinarrituta badago eta, haren eskumenekoa den arlo batean, erabakian eragin dezakeen akatsen bat dagoela eta, beraz, egiazkotasun-presuntzioa frogatzen ez denean, ezagutza espezializatuetan eta ziurtasun- edo arrazoikotasun-presuntzioan oinarrituz.

Diskrezionaltasun teknikoak, jurisprudentziak jasotzen duen moduan, *«jarduera ebaluatzaile hori kontrolatzeko aukerak murrizten ditu, eta oinarrizko bi gertakari hauek osatuko dute, funtsean: araututako elementuak ez bete izana – horiek daudenean– eta akats nabarmena; (...) Horrenbestez, desadostasuna... arbitrariotasuna nabarmena denean bakarrik gerta daiteke... Horrela, bada, erabakia... beti onartu beharko da diskrezionaltasunaren erabilera haztatua eta orekatua egiten denean.»* (Auzitegi Gorenaren 2000ko uztailaren 14ko epaia).

Arrazoi horiek kirol-arloko arbitroen edo epaimahaien eremuan aplikatuz gero, nolabaiteko paralelismoa ezar dezakegu. Printzipioz, Federazioaren lehendakariak adierazi duenez, haien balorazioa ezin da, besterik gabe, hirugarrenek izan dezaketen iritziarekin ordeztu, baina balorazio hori araututako elementuetara egokitzen dela egiaztatuko duen arbitroaren eginkizuna kontrola daiteke eta kontrolatu behar da, horiek daudenean (eta hala da kasu honetan, lehiaketa horrek aldeztu aurretiko arau batzuk bete behar baititu), baita akats edo arbitrariotasunik gertatu ez dela ere.

Kirol-arloko arbitroek edo epaimahaiak hartutako erabakien igartze-presuntzioa «iuris tantum» izango litzateke, hau da, kontrako frogak onartzen ditu. Eta, proba horretatik, arauak bete ez direla, akats bat gertatu dela edo arbitrariotasuna ondorioztatzen bada, lehiaketako epaimahaiaren eginkizuna berrikusi egin ahal izango da, hala badagokio. Arbitroen jardun egokia asaldatzen duen elementurik ez badago, epaimahaiaren erabakia nagusituko da lehiakideek edo horien ordezkariak izan dezaketen iritziaren gainetik, hura ez baita tekniko eta inpartziala.



Zazpigarrena.- Errekurtsogileak puntu horretan hartu behar du aurrea, bere alegazioen eta aurkeztutako edo proposatutako proben bitartez.

Hala ere, aztertzen ari garen kasuan, jarritako errekurtsuak aurrekariaren bertsioa besterik ez du ematen (adierazi du epaileak esan ziona egin zuela, baina lehiaketaren aktak kontrakoa adierazten duela espresuki, zirkunstantzia hori epaimahaiak ziurtatu du ondoren, eta Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioko diziplina-batzordearen aurkaratutako ebazpenean azaltzen da), baina ez du bere alegatua defendatzeko frogarik aurkeztu eta proposatu (adibidez, lehiaketan parte hartu duten beste pertsona batzuen lekuko-froga). Ezin da frogatzat hartu lurraren orografiari buruz egindako aipamen zehaztugabea.

Horrenbestez, ***** jaunak ez du behar zen lana egin epaimahaiaren erabakiaren egiazkotasun-presuntzioa baliogabetzeko; horregatik, erabaki horrek iraun egin behar du.

Zortzigarrena.- Errekurtsuan biltzen den alegazioari buruz, lehiaketa-egunean, lehiaketa amaitu eta ***** jauna deskalifikatu ondoren, jaun horrek “*salaketak gezurtatzeko aukerarik*” ez izateari dagokionez, adierazi behar dugu Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioko Kirol Diziplinaren Arautegiaren 32. artikulua honako hau ezartzen duela:

“32. artikulua.- Epaileak eta arbitroak eta ordezkari teknikoak.

Epaileak, arbitroak edo ordezkari teknikoak eskumena izango du jokoan edo lehiaketan zehar joko edo lehiaketa dela-eta eginiko arau-hauste arinengatik zigorrak ezartzeko.Beraz, kasu horretan, Federazioaren diziplinazko organo gisa jardungo du. Kirol modalitate bakoitzaren lehiaketa arautegietan



tipifikaturikoak joko dira arau-hauste arintzat, arautegi honetako 18. artikuluko f) idatz zatian adierazten den bezala.

Zigor hauek "in situ" ezarri ahal izango dira. Horretarako ez da beharrezkoa izango tramiterik egitea. Zigorak berehala betearaztekoak izango dira, nahiz eta interesdunak errekurtsua jartzeko eskubidea izango duen. Errekurtsu hori Diziiplina batzordeari aurkeztu beharko dio, era fede-maileren batean, zigorra ezarri denetik gehienez ere bi egun balioduneko epean. Aurreko epe hori amaitu eta gehienez ere bi egun balioduneko epean ebatzi beharko da errekurtsua.

Edozein kasutan, epaile, arbitro eta/edo ordezkari teknikoek izenpetutako aktak eta haien gaineko adierazpenak, argibideak, erantsitako txostenak edo osatzeko informazioak egiazkotzat jotzen dira, salbu eta ageriko errakuntza materiala gertatzen bada. Zuzenbidean onartutako edozein bideren bitartez egiaztatu ahal izango da errakuntza hori.»

Artikulu hori aplikatu dakioke hemen proposatutako kasuari; izan ere, errekurtsogileak egindako hutsegitea hutsegite arintzat hartzen da Kirol Diziplinari buruzko Arautegiaren 18.b) artikuluan: «*Epaileek eta gainerako kirol-agintariek beren eginkizunen barruan emandako aginduak eta jarraibideak betetzean jarrera pasiboa hartzea*». Eta hutsegite arina denez, jarri behar den zehapenetako bat honako hau da: (23 c artikulua) «*Joko, proba edo lehiaketatik behin betiko kanporatzea*».

Azken batean, ez dira federazioaren legeria eta arautegia urratu, eta ez da akats edo arbitrariotasun nabarmenik hauteman, eta, beraz, ez dago lehiaketako epaimahaiaren erabakia baliogabetzeko moduko arrazoirik.***** jaunak defentsa-eskubidea gauzatu ahal izan du, lehenik eta



behin Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioaren diziplina-batzordean, eta, horren ostean, Kirol Justiziako Euskal Batzordean.

Bederatzigarrena.- Azkenik, orain aurkaratu den ebazpena eman zuen diziplina-batzordearen ustezko osaera irregularrari dagokionez (“iruzurrezkoa” da errekurtsioan erabili den hitza), ***** jaunak adierazi du sinatzaile bat, hots, *****, ez dela batzorde horretako kide; aitzitik, batzordekide den batek, hots, ***** jaunak ez duela parte hartu erabakian.

Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioari kontsulta egin ondoren, federazioak jakinarazi du ***** jaunak 2015eko abuztuan utzi zuela Federazioa eta ***** jaunak ordeztu zuela. Aldaketa hori Federazioaren lehendakariak sinatutako aktaren bidez dokumentatu da. Akta 2016ko martxoaren 30ekoa da.

Horrenbestez, diziplina-batzordeak behar bezala jardun zuen hiru kideetako bat baztertu zuenean, aurreko partaidetzarengatik edozein kutsadura-susmo saihesteko, eta errekurtsioaren ebazpena beste bi kidek sinatu zutenean; beraz, ez dago quorumaren ez-betetzirik.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

***** jaunak Bizkaiko Arrantza eta Kasting Federazioko diziplina-batzordearen 2016ko irailaren 15eko ebazpenaren aurka, hau da, Bilboko Itsasadarra Kirol Klubaren Ziprinidoen Txapelketa Sozian (2016ko ekainaren



12an egin zen) deskalifikatu zutelako jarritako errekurtsua ezesten duenaren aurka jarritako errekurtsua **ezestea**.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsua aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen lehendakaria